

BIOGRAFIA

- Zizurkilgo **Errekalde** baserrian jaioa.
- **Bertsolariak** zituen **aitona** (Errekalde Zaharra), **aita** (Jose Bernardo) eta **lehengusua** (Pedro Maria Otaño bertsolari ezaguna).
- Plazidak **etxean aitarekin bertsotan** asko egiten zuen. Txirritari ere erantzun zion bertsotan, soroan lanean ari zela. Etorri handiko emakumea zen, erantzun azkarrak ematen trebea.
- 1950ean, Pedro Mari Otañori Zizurkilen egindako omenaldian abestu zuen **84 urterekin**. **Lehendabiziko aldia** zen eremu **publikoan** abesten zuena.



**Plazida
Otaño
Odriozola**
(Zizurkil, 1867-1954)

Bota
dinki!

EZKONTZEKO ASMOTAN

18 urte zituela, etxeko sukaldean, adinez aurrera zihoala esan omen zion aitari eta, ezkontzeko asmoa zuenez, dotea prestatzen joateko.

Dotea ezkonberriari gurasoek ematen zioten ondasuna zen.

Joxe Bernardo aitak bertso hau kantatu omen zion:

Ezkondu behar denala,
ho(r)ji den **baloria!**
Hemezortzi urte den
hire **edadia.**
Pikara, gaizki hazi,
lotsarik **gabia,**
hik aberastuko naun,
lehen banaiz **pobria.**

Eta alaba Plazidak erantzun:

Aita, zahartu ta gero
garai hobia **ez da,**
neska gaztiak ere
badu bere **kezka.**
Ilea zuriturik
nobiorik **ez-ta,**
orduan alperrik da
soinua ta **festa.**



Doinua:
**Ezagutu zuenak
Zortziko txikia**



Zuen inguruan ezagutu al duzue etxean bertsotan egiten duen amonarik?
Galdetu dezagun etxean!